

EIA²¹

Ingeniería de
Soluciones

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

2021-2022 *Arte Lehiaketa*

EIA21en 2. Arte Lehiaketaren Oinarriak

AURKIBIDEA

1. PARTE HARTZAILEAK.....	3
2. IZEN EMATEAK	3
3. AURKEZTEKO EPEA	3
4. MODALITATEA	4
5. GAIA	4
6. EPAIMAHAIA	4
7. ARTELANEN HAUTAKETA.....	4
8. EPAIMAHAIAREN EBAZPENA.....	5
9. ERAKUSKETA	5
10. KANAL DIGITALA.....	5
11. SARIAK	5
12. SARITU GABEKO LANAK ITZULTZEA	6
13. JABETZA INTELEKTUALA.....	6
14. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN TRATAMENDUA	6
15. OINARRIAK ONARTZEA.....	6

EIA21en ARTE LEHIAKETA (2021-2022)

Estudios e Ingeniería Aplicada XXI S.A. enpresak antolatzen du lehiaketa hau, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Arte Ederren Fakultatea lankide duela, artea ohiko ingurune akademiko eta artistikotik kanpo sustatzeko.

Gainera, arte lehiaketaren bigarren edizio honetan, tokiko artista berriei kanal digital berri bat eskaintzea du EIA21-ek helburu. Horretara, bultzatu eta bideratu nahi dira enpresak artearen erostera eta arte bildumak egiteko zaletasunera.

1. PARTE HARTZAILEAK

Honako lehiaketa hau irekita dago Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Arte Ederren Fakultatean 2021-2022 ikasturtean matrikulatutako ikasleentzat.

2. IZEN EMATEAK

Lanak aurkezteko, izena emateko honako inprimaki hau bete beharko da:

<https://art.eia21.com/participa/>

Inprimakian datu pertsonal hauek aurkeztu beharko dira: izen-deiturak, ikastaroa, telefonoa eta helbide elektronikoa. Halaber, artelanen izenburua, deskribapen labur bat, erabilitako teknika eta neurriak eta piezen irudiak bidali beharko dira.

3. AURKEZTEKO EPEA

Inprimakia bidaltzeko epea **2021eko azaroaren 28ra** arte izango da.

Aukeratutako lanak **2021eko abenduaren 9an** aurkeztu beharko dira. Entregatzeko ordutegia 10:00etatik 14:30era izango da eraikin nagusiko ikus-entzunezko plato zaharrean. Piezak, erakusteko moduan aurkeztu beharko dira euskarri zurrun baten gainean, bi dimentsiotako piezen kasuan, horman jarri ahal izateko ainguraketak jarrita dituztela.

Obra bidimentsionalak zein hiru dimentsiotakoak behar bezala enbalatuta eta kanpoaldean izen-deiturekin identifikatuta emango dira, bai eta horien argazki bat ere. Lanen irudiekin batera, 2021-2022 ikasturteko matrikula ziurtagiriaren fotokopia aurkeztuko da.

Baldintza horietan entregatzen ez diren obra hautatuak ez dira jasoko.

4. MODALITATEA

Lehiaketara honako hauek aurkeztu ahal izango dira:

- ✓ Obra bidimentsionalak eta hiru dimentsiotakoak.
- ✓ Lan argitaragabeak eta originalak.
- ✓ Teknika eta formatua guztiz libreak izango dira, eta positiboki baloratuko da formatu handia.
- ✓ Parte hartzaile bakoitzak gehienez ere bi obra aurkeztu ahal izango ditu.
- ✓ Ezin izan dira beste ezein lehiaketatan saririk jaso dutenak.

5. GAIA

Oraingo edizio honetarako gaia librea izango da. Hala ere, oso positiboki baloratuko da "naturaren indarra", "energia berriztagarriak" edo "industria" kontzeptuekin lotutako gaia.

6. EPAIMAHAIA

Epaimahaia 5 lagunek osatuko dute, eta UPV/EHUren Arte Ederren Fakultateko eta EIA21eko ordezkariak izango dira kide.

7. ARTELANEN HAUTAKETA

Artelanekin erakusketa bat irekiko da **2021eko abenduaren 20an** EIA21en Erandioko bulegoetan (Axpeko Erribera 11, C1 M101 eraikina) eta EIA21en webgunearen bidez:

<https://art.eia21.com/>

8. EPAIMAHAIAREN EBAZPENA

Epaimahaiaren erabakia publikoa eta atzeraezina izango da, eta **2022ko apirilaren 8an** emango da argitara. Horretarako, prentsaurreko bat egingo da eta egun horretan bertan itxiko da erakusketa.

9. ERAKUSKETA

Hautatutako lanak **2021eko abenduaren 20tik 2022ko apirilaren 8ra arte** egongo dira ikusgai, biak barne, EIA21en bulegoetan.

10. KANAL DIGITALA

Erakusketari ikusgarritasun handiagoa emateko, EIA21ek kanal digital berri bat eskainiko du. Artelanak ikusgai egongo dira webgunean **2021eko abenduaren 20tik** aurrera. Plataforma horren bidez, artistek beren lanak erakutsi ahal izango dituzte, horrela, obren salmenta sustatzeko kanpaina osatuz.

11. SARIAK

EIA21ek honako diru-sari hauek emango ditu:

- ✓ Lehenengo saria: 3.500 euro
- ✓ Bigarren saria: 1.500 euro
- ✓ Hirugarren saria: 1.000 euro

Sari horiei dagokien atxikipena aplikatuko zaie.

Lehenengo, bigarren eta hirugarren saria irabaziko duten artelanak EIA21en ondare izango dira.

12. SARITU GABEKO LANAK ITZULTZEA

Aurkeztu eta saririk jaso ez duten artelanak **2021eko apirilaren 29an** jaso beharko dira UPV/EHUren Arte Ederren Fakultateko ikus-entzunezko plato zaharrean. Epe hori amaituta, antolakuntzak ez du bere gain hartzen aurkeztutako artelanak itzultzerik.

13. JABETZA INTELEKTUALA

Egile-eskubideak ez dira inola ere mugatuko, hautatutako obraren komunikazio publikorako eskubidearen lagapena izan ezik.

14. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN TRATAMENDUA

Deialdira aurkezten diren artisten datu pertsonalak EIA21en (ESTUDIOS E INGENIERÍA APLICADA XXI S.A.) ardurapean tratatuko dira, helbidea Axpeko Erribera 11, C1 M101 eraikinean, 48950 Erandion duela. Tratamendu honen helburua deialdia eta etorkizuneko komunikazioak kudeatzea da. Datu horiek ez zaizkie hirugarren pertsonen helaraziko eta gorde egingo dira, baldin eta ezinbestekoa edo legitimoa bada beroriek jasotzerakoan zehaztutako helburua lortzeko, salbu eta irabazle suertatzen denarenak, EIA21en hedabideetan argitaratuko baitira haren irudia eta identifikazio datuak.

Nolanahi ere, datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko eskubideak, tratamendua mugatzeko eskubidea edo datuen aurka egiteko eskubidea baliatu ahal izango ditu, bai eta datuen eramangarritasunerako eskubidea ere. Eskaera horiek Axpeko Erriberako 11. zenbakian (C1 M101 eraikina, 48950 Erandion) egin beharko dira, edo bestela, mezu elektroniko bat bidalita eia@eia21.com helbidera.

Era berean, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Espainiako Agentzian.

15. OINARRIAK ONARTZEA

Lehiaketa honetan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek eta aurreikusi gabeko arazoak edo egoerak ebazteko epaimahaiak hartzen dituen erabakiak guztiz onartzen eta bere egiten direla.